

NATURAN OINARRITUTAKO IRTENBIDEAK NERBIOI- IBAIZABAL ESKUALDEA ERALDATZEKO

Posted on 29/09/2025 by Naider

Category: [Albistea](#)

Tags: [GIS bisorea](#), [Naturan oinarritutako konponbideak](#), [NbS](#)

Irailean egindako Nerbioi-Ibaizabal Mankomunitateko Iraunkortasun Batzordearen saioan, bederatzi udalei aurkeztu genizkien Naturan Oinarritutako Irtenbideen (NOI) erabilera sustatzeko proiektu aitzindari baten emaitzak. Azken hilabeteetan, tokiko talde tekniko eta politikoekin elkarlanean aritu gara aukera-maparen eraikuntza partekatuan, lehentasunak ezartzeko metodologia batean eta udalerrri bakoitzaren errealitatera egokitutako ekintza zehatzen portfolio batean.

Prozesua sei fasetan garatu da, eskualdeko diagnostiko territorial eta ekologikotik hasi eta azken proiektu erakusgarriak formulatu arte. Anlisi anitzeko irizpideetan oinarritutako tresna baten bidez –klima-inpaktua, bideragarritasun teknikoa, onura sozialak eta kostua balioesten dituen–, udalerrri bakoitzerako estrategikoenak diren esku-hartzeak lehentasunez antolatzen lagundu dugu.

Udal bakoitzak badu jada jarduketa-fitxen multzo bat, non proposatzen diren esku-hartzeak honako hauek bezalakoak: espazio urbanoen naturalizazioa, ingurune degradatuen birlandaketa, teilatu eta fatxada berdeak sortzea, ibaiertzen berreskuratze ekologikoa edo baso-kudeaketa jasangarria. Proposamen hauek klima-erresilientzia eta auzoetako bizi-kalitatea modu ukigarrian hobetzeko pentsatuta daude.



FASE V
PROYECTOS

7. PORTFOLIO DE PROYECTOS CONCRETOS DE SBN



Cada Municipio cuenta con **fichas de actuación** con la información de los proyectos demostrativos seleccionados. Además, podrán ver los **proyectos de otros municipios** que les sirvan de inspiración.



Gainera, proiektuak udal langileentzako prestakuntza espezifikoa, ingurune naturalaren kartografia zehatzarekin GIS bisore bat eta erabakiak hartzeko laguntza jarraitua barne hartu ditu. Diagnostiko, prestakuntza eta plangintza konbinazio honek Mankomunitateari aukera ematen dio klima mailan anbizio handiko, kohesionatutako eta naturan oinarritutako estrategia baterantz urrats sendoa emateko.

Naiderrekin harrotasunez lagundu du prozesu honetan, naturak tokiko klima-ekintzan funtsezko aliatu gisa duen papera indartuz.

